

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren 2018ko erroldak jendaurrean jartzea eta ordaintzeko epea hastea

Trakzio mekanikoko ibilgailuen 2018ko zergaren errolda osaturik eta onetsirik, jendaurrean jarrita egongo da hamabost egun baliouduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, interesdunek aztertu ahal izan ditzaten eta, hala balegokio, egoki deritzeten alegazio eta erreklamazioak aurkeztu.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak, 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo ordaintzeko borondatezko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

I. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: 2018ko otsailaren 16tik apirilaren 16ra.

B) Beteazte aldia: 2018ko apirilaren 17tik aurrera beteazte aldia hasiko da, eta beteazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak, adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Lapuebla de Labarca, 2018ko urtarrilaren 29a

Alkatea

MAIDER MURILLO TREVIÑO